



2011-10-04

Kirmen Uribe eta Quique Gonzalez, Bilboko Poesia Astea

Kirmen Uribe idazle bizkaitarrak eta Quique Gonzalez musikarari madrildarrak 'Bilbaopoesía' Bilboko Poesia Astea inauguratuko dute hilaren 13an, 'Egun euritsuen ostean' ikuskizunarekin.

Quique Gonzalezen doinuak eta Kirmen Uriberen testu eta olerkiak uztartzen dira bertan, eta, beste hainbat hiritan aurkeztu baldin badute ere, estreinakoz ekarriko dute ikuskizuna Bilbora.

Bidebarrietako liburutegian izango da hitzordua, 20:00etatik aurrera. Sarreraren prezioa 6 eurokoa da, eta asteazken honetan jarriko dituzte salgai, Bidebarrieta liburutegian bertan (18:00etatik 20:00etara).